



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### **PROPOSAMENAK IREKITZEKO AKTA**

**Itsasondon, 2021ko martxoaren 4ean goizeko 9ak direnean Itsasondoko Errota frontoian komunak eta aldagela irisgarriak jartzeko braren proposamenak irekitzeko biltzen dira honako hauek:**

**Lehendakaria Iñaki Aizpuru Oiarbide**

**Bokalak: Beñat Mendiguren Valles**

**Idazkaria: Belen Mendizabal Otegui**

**Goizeko 9ak direnean, bilerari hasiera ematen zaio.**

**Informatzen da otsailaren 25ean hartutako erabakiari jarraiki Solimef Iberica enpresak aurkeztu duela Sektore Publikoko Lizitzatzaileen erregistroan inskribaturik egotearen justifikazioa.**

**Aurkeztu duen dokumentazioa aztertu ondoren, idazkariak informatzen du, enpresaren helburu soziala, ez datorrela bat, kontratatu behar den obraren xedearekin, eta Udalak obra honen kontrataziorako onartutako pleguaren 12. Artikuluan jasotzen den eran, Solimed Iberica S.L. enpresak, ez dituela betetzen gaitasunari buruzko baldintzak.**

**Beraz, berresten den otsailak 25ean kontratazio mahaiak onartutako erabakia, eta Solimed Iberica S.L. eta Delsa Irun S.L. enpresek aurkeztutako proposamenak ez onartzea erabaki da.**

**Jarraian, arkitektuak egindako ingurumen erizpideen atalaren balorazioa ikusi ondoren, behin betiko balorazioa egiten da, eta honako hau da:**

**Azken emaitza:**

	Proposamena	Berre Epea	Murrizketa Egunak	Puntuak Ekonomikoa	Puntuak Bermea	Puntuak Murrizketa	Ingurumen erizpideak	Puntuak guztira
<b>Iturrioz</b>	<b>56673,40</b>	<b>5 urte</b>	<b>5 aste</b>	<b>60</b>	<b>27</b>	<b>5</b>	<b>8</b>	<b>100</b>
<b>Etxaide</b>	<b>57435,65</b>	<b>5 urte</b>	<b>5 aste</b>	<b>46,13</b>	<b>27</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>80,13</b>

**Kontratazio mahaiak, Itsasondoko Errota frontoian komunak eta aldagela irisgarriak jartzeko obra CONSTRUCCIONES ITURRIOZ S.L. enpresari esleitzearen aldeko proposamena Udal batzarreari luzatzea erabaki du.**

**Eta besterik gabe akta hau luzatu eta izenpetzen dut goian aipatutako leku eta egun berean.**

